

iminiric Alhambraco torre edo gazteluetan gueure curutze santiaren señalia.

España guztijac euquiric gure Erreguiñac berac daucazan sentimendu onac, jaguida diar bategaz eta armac escuban dituala, Españari eguin jacotzan injurijac zucendutera.

Pena edo atsacabe andi bat emoten dau, ichiric baquiaren gozotasunac, guerrara juatia; baña elduric ocasinoe au, premiñazcua da cumplietia obligacinoe onegaz noble eta leijalac leguez.

Es daucat, bada, gauza onen ganian cer esan zubei, bada ondo eza gutzen dot cembat valijo daben zuben artian leijaltasunac eta ceubec errijén oneraco daucazuben etzeguitasun edo ardura andijac; eta izanic zubeac araco anchiñaco Vizcaitar guerreru eta glorijaz hetericuen semiac, ceubec daquizubé nic baño obetuago, cer eguin biardozen gaurco eguneco ocasinoe edo circunstancijétan.

Orregaitic daucat atseguinic andijena gaur zubeac emen icustiagaz, erantzunic ain laster eta gogo onagaz ceubén Diputadu jaunac eguin deutzuben deijari.

Cofijantza osua daucat ceubec orain artu biar dituzuben neurrijac, izango dirala eracusteco mundu guztijari, ceuben asaba edo gurasuen seme valeroso eta duiñac zareela, eta alan beteco dirala Gobernuac gaur gauza onen ganian daucazan gurari eta asmuac.

Aurquituten danian Erreiñua bere seme guztijen premiñan, ecin guelditu leiteque iñor bere prestau edo eguin baaric bere servicijua. Eta zubeac, Vizcaitar noble eta indartzuac, ocasinoe guztijetan eracutsidozuenac eguitade entzute andico eta miragarrijenac, ustedot ez zaréla guichiago izango alaco D. Diego Lopez de Haro, eta beste bere guisaco guerreru, Navas Tolosaco eta beste lecuetan ichi ebén fama edo izen andico guizonac baño.

Zeubén foruco leguietan ez balego beré iminita gaurco egunian daucazuben zor edo obligaciñoa, ceubec Erreiñua servietaco ocasiñoenontan, azco izango litzateque au esagutu eta eguiteco, zubeac ceuben errijentzat edo Españiarentzat daucasuben etzeguitasuna.

Uste dot, bada, arturic parte beste Español anae guztijaquin, eurac eta ceubec ez dozubéla euqui biar fortuna bat baño, eta alan esagutu dabéru provincijétaco Diputadu Cortétaco jaunac, Erreguiñari eguin deutesan esquintzarijétan.

Prueba edo esturazuneco demporan biar dabé, nai erri, nai particularrac, eguin aleguiña euren esan dan zor edo obligaciñoia paguétaco, eta icusiric léngo Españaco Erreguien eta batez bere gure oraingo Er-